

Hernanik Kronika

TOKIKOM 2014ko urtarrilaren 21a, asteartea ::: 4.620 zk. ::: www.kronika.net

ULTRAFONDO SOLIDARIOA - SANT VICENÇ DELS HORTS

Xabier Salillasek, Guinness errekorra

Toni Vasquez eta Jose Antonio Soto ultrafondistekin batera lortu du errekorra: 24 orduan 449,4 kilometro egin dituzte korri egiteko zintan. Proba solidarioa izaki, helburu nagusia ere lortu dute: tonelada bat janari bildu dute Kataluniako San Vicenç dels Horts herriko janari bankuaren alde.

KIROLA elkartasun instrumentu bihurtu du Xabier Salillasek beste behin. Kataluniako San Vicenç dels Horts herrian izan da asteburuan, helburu nagusi batekin: bertako janari bankurako ahalik eta janaria gehien biltzea. Toni Vasquez ultrafondista bertakoa da, eta jendea erakartzeko asmotan izan zuen ideia: proba bat antolatzea, Guinness errekorra eta munduko errekorra hausteko. Xabier Salillasek, Jose Antonio Sotok eta Toni Vasquezek berak hartu zuten parte eta lortu zuten helburua eta errekorra: 24 orduz zintan korri egin eta gero, 449,4 kilometro egitea. Erronka solidarioa ere lortu zen, tonelada bat janari bildu baitzen, janari bankurako.

22 ordu eta erdi, errekorra egiteko

Orain arteko Guinness errekorra Londreseko Forest Schooleko 12 kidek zeukaten jarria 2012an: 12 lagun artean 437,7 kilometro zituzten eginak, zinta gainean 24 ordu korrika aritu eta gero; hauek ordea, erreleboka egin zuten korrika. Xabier Salillasek eta beste bi ultrafondistek 24 orduak betetzeko ordu eta erdi falta zela gainditu zuten marka hori. «Emozio haundiarekin bizitu genuen momentu hori, zintatik jaitsi, eta 10 minutu inguru izan genituen ospatzeko. Malko artean gogoratzen dut momentu hura». Ospatu eta zinta gainera igo ginen berriz, 24 orduak bukatu aurretik, ahalik eta kilometro gehien egiteko» azaldu dio Kronikari Salillasek.



Guinness errekorra ospatzeko zintatik jaitsi baziren ere, berehala igo ziren, 24 orduak bukatzera.

Munduko errekorra eta beste hainbat errekor

Proba kontrolatzen izan ziren Kataluniako Atletismo Federazioko epaileak eta baita Guinnesseko epaileak ere. Hiru partehartzaileek lortu izanaren ziurtagiria jaso zuten asteburuan, baina oraindik badira egin beharreko tramite batzuk: «epaileak bertan egin ziren, eta ontzat eman zuten frogara. Orain ordea, tramiteak geratzen dira eta diploma bera Londresen banatuko da. Badakigu munduko errekorra ere egin dugula, eta baita beste asko ere... Ez dakigu zeintzuk, zeinek zein... baina hori da gutxienezkoa. Egindakoa ikaragarria izan da, eta denborarekin jakingo dugu guztia».

Bi momentu kritikiko

Emaitzak sufrimendu asko du atzean, eta bi momentu kritikiko bizitu zituztela aitortu dio Salillasek Kronikari. «Aurre-

neko krisia nik izan nuen, 12 ordu korrika egin eta gero. Orduro egiten zizkiguten mediku probak: makinatik jaitsi, tentsioa hartu, bihotza begiratu, pisatu... eta 12 ordu pasata egindako proban, ni oso limitetan nengoen. Lau kilo eta erdi galdu nituen, eta medikuek antolatzaileei esan zieten, hala jarraituz gero, utzi egin beharko nuela. Milimetrora egindako janari eta edariarekin errekupeatzea lortu nuen, eta aurreneko krisi hori gainditzea lortu nuen».

Bukatzeko 5 ordu falta zirela izan zuten bigarren momentu kritikiko: «bi ahuldadeak jota ginen, eta bat tira eta tira ari zen. Halako batean, makinatik jaitea erabaki zuen ondoen zegoen horrek, eta erori egin zen. Medikuek azterketak pasa, eta azkarregi jaitsi izanagatik izan zitekeela esan zuten. Makinara igo zen berriz, altabozetatik musika jartzeko es-

katu genuen, motibatzen, eta azkenean, lortu genuen bukatzea. Ikaragarria izan zen».

Jendearen laguntza ere, klabea izan zela dio Salillasek: «jendearen oihuak, animoak... beraien laguntzagatik lortu genuen... Wukroren alde korrika egindako egun haiek askotan etorri zitzaikidan gogora, antzekoa izan zen. Eskerrak eman nahi dizkiet bihotzez antolatzaileei, jendeari, medikuei, guztiei... denek dute parte lortutakoan».

Deskantsatzeko garaia

Aste hau deskantsu gisa hartuko du Salillasek, errekupe-ratu eta probak utzi dizkion ondorioak aztertu, fisioterapeutarekin. Ondoren, pixkanaka entrenatzen hasteko asmoa azaldu dio Kronikari: «datorren aste hasieran edo, poliki-poliki hasiko naiz eliptikarekin... azkenean, honek ematen dit bizia».

❖ BIDE MOZKETA

Floridako tunela itxita, semaforoak jartzeko

Atzo goizetik itxita dago Floridako tunela, trenbide azpitik pasatzen dena. Oinezko eta ibilgailuen pasabidea arautzeko semaforoa jarriko dute, eta lanek irauten duten bitartean, hilaren 24ra arte, itxita egongo da. ||

❖ LITERATUR SOLASALDIA

'3 Mariak' aztergai, gaur

Literatur solasaldia antolatu dute gaur, Arantxa Urretabizkaiaren '3 Mariak' liburuari buruz. Udal liburutegian izango da, Ane Mayozeekin, euskeraz; 19:30etan. ||

❖ GAZTE LOKALAK

Aurreneko saioa bihar, gazteekin

Udalak gazte lokalen inguruko hausnarketa eta elkarbizitazarako plana egin nahi du eta saioak antolatu ditu datozen asteetan. Bihar izango da aurrenekoa, gazteekin. Biterin, 18:30etan. ||

❖ HITZALDIA

Hernani eta altxamendu militar faxista, hizketagai

Hitzaldia antolatu du bihar Lau Haizetara Gogoan plataformak, Biterin, 19:30etan. Txuso Gomezek hitz egingo du batetik, *Hernani y el alzamiento faxista* gaiaren inguruan. Eta Gotzon Garmendiak bestetik: *Eusko Jauriaritzaren bake eta elkarbizitza plana eta oroimen historikoa*. ||

❖ SAN JOAN KONPARTSA

Errifa sarituarentzat, azken eguna

7.857 zebakia izan zen saritua, San Joan Konpartsak Santo Tomas egunean egindako zozketan. Irabazleak gaur du deitzeko azken eguna: 695 753 138. ||

MARI FE
ARRANDEGIA
ORDUTEGIA
GOIZEAN: 8:00 - 14:00
ARRATSALDEAN: 16:30 - 20:00
NAGUSIA 36 943 550 489

OINDI
taberna
NAGUSIA, 25
HERNANI
943 557 509

BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA
Eguneroko ogia beti bikain
Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Eziago poligonoa - Tel.: 943 55 00 89
20120 Hernani

TELEFONAK

● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 092 ● **DYA:** 943 464622

● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037

● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103

● **FARMAZIAK** ● **Egumez:** **Aldabe** Perkaiztegi 8 (Antziola) - 943 336022 ● **Gauz:** **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077

EGURALDIA


GAUR Goizean zaparradak espero badira ere, eguerditik aurrera hobera egingo du. Temperatura minimoak, gora: Min.5° / Max.11°



BIHAR Fronte berri bat iritsi, eta okerrera egingo du. Zerua lainotuta egongo da eta euria egingo du, batez ere arratsaldean. Temperaturaren aldaketa gutxi: Min.6° / Max.11°

(euskalmet)

† MIGUEL ALMORZA LIZEAGA

Atzo hil zen, 88 urte zituela.
- Goian Bego -

HERNANIKO ILOBAK.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela **GAUR, ASTEARTEA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, Urnietako MIKEL GOIANGERUAREN** parroki elizan gorputza bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.



Urnietan, 2014ko urtarrilaren 21ean

Helbidea: Beatsaburu baserria - Lategi auzoa
OHARRAK: Gorputza Hernaniko ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da arratsaldeko 18:30ak arte.

LURDES MATEO MUJIKA

*Ez agurrik ez adiorik
geroarte baizik*



MUJIKA SENDIA

Hernanin, 2014ko urtarrilaren 21ean

IRAGARKI MERKEAK

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, bero-gailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, aurikuloterapia,....
943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

LURDES MATEO MUJIKA

- Goian Bego -

Agur izeba Lurdes



KRISTINA ETA AITOR, MAIDER ETA JORGE, RAFA ETA MAIDER, ANE ETA JON, MIREIA ETA RAUL, OLAIA ETA JON, MAIDER, IRATI, ANE LIYI, JUNE, ANE, LIDE, PERU, ADUR, NAHIA, EKHI, LIHER, JUNE.

Hernanin, 2014ko urtarrilaren 21ean

LURDES MATEO MUJIKA

- Goian Bego -

Muxu haundi bat



KRISTINA (†) ETA RAFA (†), ANA LORE ETA ION, MALU ETA ALBERTO, MAKE ETA XABI, MARCOS ETA ANA, IÑAKI ETA OIHANE.

Hernanin, 2014ko urtarrilaren 21ean

† LURDES MATEO MUJIKA

ANDREA

Atzo hil zen, 47 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Haren animaren zuzendaria: Jose Luis Aperribay; senarra: Jon Elosegi; seme-alabak: Maitane eta Nora eta Eneko; gurasoak: Claudio (†) eta Paula; anai-arrebak: Markos eta Ana, Iñaki eta Oihane; ezkon anai-arrebak: Rafa (†) eta Kristina (†), Jon eta Ana Lore, Alberto eta Malu, Xabi eta Make; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela **GAUR, ASTEARTEA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2014ko urtarrilaren 21ean

Helbidea: Karobieta, 4.
OHARRAK: Gorputza ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da eguerdiko 11:45ak arte.



LURDES MATEO MUJIKA

*Beti goxo, beti maitakor,
beti maitagarri.
Gure bihotzean izango zaitugu
beti Lurdes,
zurekin jangelan egondakoak.*



LEHENENGO MAILAKO UME ETA GURASO TALDEA

Hernanin, 2014ko urtarrilaren 21ean

LURDES MATEO MUJIKA

ZURE AMAREN LAGUNEN PARTETIK



Hernanin, 2014ko urtarrilaren 21ean

LURDES MATEO MUJIKA

*Elkarrekin egindako kilometroak
eta bizitako une goxoak
gurekin eramango ditugu zapatilak
janzten ditugun bakoitzean.*



EMAKUME KORRIKALARIAK

Hernanin, 2014ko urtarrilaren 21ean

LURDES MATEO MUJIKA

*Zuk hain maitia zenuen
musika eginez
gurekin egongo zara*



HERNANI MUSIKA ESKOLA PUBLIKOA

Hernanin, 2014ko urtarrilaren 21ean



LURDES MATEO MUJIKA

Besarkada haundi bat

ENEKOREN LAGUNAK



Hernanin, 2014ko urtarrilaren 21ean

LURDES MATEO MUJIKA

Besarkada goxo bat

HERNANIKO BILGUNE FEMINISTAKO LAGUNAK

Hernanin, 2014ko urtarrilaren 21ean



LU MATEO MUJIKA

*Maitasuna partekatzen denean
handitzen den gauza bakarra da*



ZURE LAGUNAK

Hernanin, 2014ko urtarrilaren 21ean

LURDES MATEO MUJIKA

*Lankide fina,
lagun leiala
gure ondotik joan zara
utziz hutsune itzela.
Gaur izan arren guretzat
egun beltz eta krudela
irrifar batez gogoratuko zaitu
Elizatzoko jangelak.*



ELIZATXO IKASTOLAKO JANGELAKO ZURE LANKIDE ETA LAGUNAK

Hernanin, 2014ko urtarrilaren 21ean

LURDES MATEO MUJIKA

*Izan zarenagatik
eta erakutsi diguzunagatik
ez zaitugu inoiz ahaztuko.
Besarkada bat familiari.*



AMPAKO GURASO ETA IKASLEAK

Hernanin, 2014ko urtarrilaren 21ean



LURDES MATEO MUJIKA

Gure bihotzean zaude



ZURE BETIKO LAGUNAK

Hernanin, 2014ko urtarrilaren 21ean

LURDES MATEO MUJIKA

*Besarkada bat Enekori
eta familiari*



ANDONI ETA ENEKOREN MUTILAK OHOREZKO INFANTILAK

Hernanin, 2014ko urtarrilaren 21ean

LURDES MATEO MUJIKA

Betiko izango zaitugu gogoan



MAITANEREN TXIKITAKO LAGUNAK

Hernanin, 2014ko urtarrilaren 21ean